



Telebista, gaurkotasun osoko zerbitzua¹

(Television, a full present service)

SARASOLA GORRITI, Silvia

EHUko irakaslea
Euskal Herriko Unibertsitatea. Zuzenbide Fakultatea
Manuel de Lardizabal, 2
20009 Donostia

BIBLID [1137-1951 (1998), 2; 75-82]

Duela denbora gutxira arte, telebista izan da zerbitzu publiko esanguratsuenetariko bat. Halaxe da; telebistak egungo gizartean duen hedapena eta demokraziaren indartze prozesuan duen garrantziaren ondorioz, hura zerbitzu publikoa izatea eztabaida-ezinezko adierazpena izan da. Egun, telebista moten aniztasuna dela medio, izaera hori bere neurrietara murriztu beharra dago. Zentzu honetan, ondorengo lerrook etorkizuneko telebistak nolakoa izan behar duen gaiari buruz eztabaida piz dadin hausnarketa apal bat baino ez dira; izan ere, telebistaren erregimen juridikoak jasan behar duen aldaketa prozesuan gizartearen partehartzea galdatu beharko litzateke.

Hasta hace bien poco, la televisión ha constituido uno de los servicios públicos más significativos. Así es, en base tanto a la difusión de la misma en la sociedad actual, como a la importancia que reviste en el proceso de fortalecimiento de la democracia, su carácter de servicio público ha sido una realidad indiscutible. Empero, debido a la pluralidad de tipos de televisión, hoy día dicho carácter ha de ser reducido a sus justos términos. En este sentido, las siguientes líneas no son más que una humilde reflexión para avivar el debate sobre cómo debe ser la televisión del futuro, y es que bueno sería que la sociedad participara en el proceso de modificación a que, de forma indiscutible, debe someterse el régimen jurídico vigente de la televisión.

Jusqu'à il n'y a pas longtemps, la télévision a été un des services publics les plus significatifs. Ainsi, au vu de l'expansion de celle-ci dans la société actuelle, et de l'importance de son rôle dans le processus de consolidation de la démocratie, sa fonction de service public a été une réalité indiscutable. En raison de la pluralité de types de télévisions, il faut aujourd'hui réduire cette affirmation à sa juste mesure. En ce sens, les lignes qui suivent ne sont qu'une humble réflexion destinée à relancer le débat sur comment doit être la télévision du futur. Il faudrait exiger à la société qu'elle participe au processus de modification que le régime juridique de la télévision doit subir.

1. Lan hau burutzeko, MUÑOZ MACHADOK zerbitzu publikoei buruz argitaratu duen lau liburukiko bilduman oinarritu naiz, izan ere, obra honen hirugarren liburukia eskusiboki telebistari baitago eskainita. Ikus Santiago MUÑOZ MACHADO: *Servicio público y mercado. I. Los fundamentos. II. Las telecomunicaciones. III. La televisión. IV. El sistema eléctrico*, Cívitas Edit., Madril, 1998 (ikus baita lan honi buruz nik neuk egindako errezentzia: *Revista Vasca de Administración Pública*, 50. zenb., 1998, 474 or. eta h.). Obra honetan ez bakarrik indarrean dagoen araudia, telebistak egun gainditu behar dituen arazoak ere aztertzen dira, arazo hauek direlarik, gehienbat, kronika honetan aditzera ematen ditudanak.

1. Legediaren bilakaera. 2. Europako Batasunaren jarrera. 3. Telebista publiko eta pribatuaren arteko ika-mikak. 4. Telebistaren zerbitzupublikotasuna. 5. Ondorioak.

Azken hilabeteetan, telebista ohikoa dena baino gehiago agertu da gure egunkarietan, eta sortu den giro nahasia dela medio, denbora gutxian, hura oinarritzen zuten zutabeak amiltzeko arriskua ez ote dagoen beldur naiz. Halaxe da, haren finantza arazoak eta kutsu politikoaren ondorioz, bere zerbitzupublikotasuna zalantzan jarria izan da.

Gaurko gizartean dauden komunikabideen artean, telebista da nagusiena. Telebistak, informazioa eman eta jasotzeko bide garrantzitsuenetariko bat izateaz gain, aurkeztuko duen informazioa bera sortu egiten du, batez ere errealitatearen selekzionatze prozesu baten bidez. Horretaz gain, kulturaren hedapena sustatzeko eta partehartze politikoaren bide izan dadin zenbait balore eta printzipio bete behar ditu, izan ere, telebistak Estatu demokratikoaren funtzionamendu eta jarraipenari ukitzen baitio².

“ ... telebista, ohituraz, monopolioan kudeatzen den Estatuko zerbitzu publikoa kontsideratu da.

”

Dakigunez, lortu duen garapen teknologikoari esker, telebista gaur erabakiorra suerta daiteke iritzi publiko askea bermatzeko. Hori dela-eta, ohituraz, monopolioan kudeatzen den Estatuko zerbitzu publikoa kontsideratu da. Beraz, orain dela denbora gutxira arte ez da aldarrikatu telebistarentzat idatzizko prentsak gozaten duen askatasuna, bere ezaugarri bereziak –urritasun arazoak, teknikoki, eta aniztasuna gauza guztien gaineratik bermatu nahiak– monopolioa komenigarriagoa egiten zuelakoan.

Gure helburua, telebistaren eraentza juridikoa zein egoeran aurkitzen den aztertzea da, eta bide batez, epe laburrera aurre egin behar dien arazoak zeintzuk diren jakitera ematea.

1. Legediaren bilakaera³

Telebistaren ezaugarri nagusia –telekomunikabide ororena bezala– azken urteotan jasan duen hedapen itzela da. Telebista publikoaren jatorria 1907. urtean kokatu behar bada ere, hurreneko aurrekina 1980ko Irrati eta Telebistaren Estatutuan aurkitzen dugu. Bertan, telebista Estatuaren funtsezko zerbitzu publikoa dela adierazten da, Konstituzioak zabaltzera ematen duen aniztasun politikoa bermatzearen.

Telebista autonomikoak 46/1983 Legean arautzen dira. Kasu honetan, ordea, ez zaie titularitate autonomikoa arrezagutzen, Autonomia Erkidegoek Estatuak emandako emakidaren bidez ustiatzen baitute telebista⁴.

Bost urte beranduago, Telebista pribatuak arautzen dituen legea onartu zen, 10/1988 Legea hain zuzen ere. Telebista hauen sortzea oso eztabaidatsua izan zen eta Konstituzio Auzitegiaren eskuhartzea galdatu zuen, zeinak esan baitzuen telebista pribatuak ez direla Konstituzioaren 20. artikulua ezarritako beharra, aipatutako artikulua bere izatea ukatzen ez badu ere⁵.

2. J.J. GONZÁLEZ ENCINAR: “Televisión y democracia. La inconstitucionalidad del Estatuto de la televisión”, *Anuario de Derecho Constitucional y Parlamentario*, 7. zenb., 1995, 141 or. eta h.
3. Telebistaren legeriak jasan duen bilakaera aztertzeko, ikus MUÑOZ MACHADO: *Servicio público y mercado. III. La televisión...*, aip. ob., 31-83 orr.; T. DE LA QUADRA-SALCEDO: “Los servicios televisivos”, *Cuadernos de Derecho Judicial*, XXVIII. liburukia, 1996, 364 or. eta h.; eta J.M. SOUVIRON MORENILLA: *La actividad de la Administración y el servicio público*, Comares Edit., Granada, 1998, 434-439 orr.
4. Telebistaren eraentza juridikoari eta kudeaketari dagokionez, Autonomia Erkidegoek dituzten eskuduntzen azterketarako ikus C. CHINCHILLA MARÍN: *La radiotelevisión como servicio público esencial*, Tecnos Edit., Madril, 1988, 151 or. eta h., eta C. GARITAONANDÍA: “La televisión y las Comunidades Autónomas”, *Revista Vasca de Administración Pública*, 2. zenb., 1982, 143 or. eta h.
5. Konstituzio Auzitegiaren martxoak 31ko 12/1982 Epaia. Ikus MUÑOZ MACHADO: *Servicio público y mercado. III. La televisión...*, aip. ob., 63 or. Telebista eta zerbitzu publikoaren doktrinari buruz Konstituzio Auzitegiak eman dituen epaien bilakaera eta bere kritika aztertzeko: MUÑOZ MACHADO, aip. ob., 128 or. eta h.; ikus ere QUADRA-SALCEDO: “Los servicios televisivos...” aip. ob., 397 or. eta h., eta P. SALVADOR CODERCH, M.R. LLOVERAS I FERRER eta J.C. SEUBA I TORREBLANCA: “Del servicio público al servicio a la comunidad”, *Revista de Administración Pública*, 136 zenb., 1995, 80 or. eta h.



1995. urtean telebistari buruzko beste hiru lege argitaratzen dira. Horietako bat, 37/1995 Legea, satelitearen bidez hedatzen den telebistari dagokio. Telebista mota hau eraentzen zuen aurreko legeak egiten zuenaren aurka (35/1992 Legea), kasu honetan ez da telebista modalitate hau zerbitzu publikoa denik deklaratu. Hori dela-eta, telebista ez da emakiden bidez kudeatzen; oraingo honetan, merkatu askean mugitzen garenez gero, baimenen bidez gestionatuko da. Lege honi dagokion erregelamendua, 136/1997 Errege Dekretuak onartu du⁶.

Toki Administrazioiko eremuan, 42/1995 Legeak lur-uhinen bidezko telebista eraentzen du eta zerbitzu publikoa denez gero, emakidan ematen da bere kudeaketa. Horretaz gain, izaera publiko nahiz pribatukoa izan daitekeen telebista baten aurrean aurkitzen gara. Udalerriak emakida beregan hartzeko lehentasuna du, eta hauek ez badute ahalmen hau egikaritzen, Autonomia Erkidegoak hura pertsona fisiko edo juridiko bati esleitzen diezaioke⁷.

Emakidak dira, berriro ere, kable bidezko telebista kudeatzeko sistema 42/1995 Legearen arabera. Barruti bakoitzeko emakida bat ematen da, Telefonicak zerbitzu hau prestatzeko duen eskubidea salbu. Gobernu popularrak, boterera ailegatu bezain laster, telekomunikabideak liberalizatzeko Errege Lege Dekretu bat onartu du, ekainaren 7ko 6/1996 Errege Dekretua. Bere bitartez, telekomunikabideen antolaketari buruzko Legea erreformatzeaz gain, hau da, 31/1987 Legea, kableen bidezko telekomunikabideen Legea aldatu da.

Telebista modalitate hau zerbitzu publikoa den ala ez ez dago guztiz argi. Arautzen duen Legearen lehenengo artikuluan kableen bidezko telekomunikabideak zerbitzu publikoak direla esaten badu ere, ez da inon adierazten telebista konkretuki zerbitzu publikoa denik. Azken susmo hau oinarritzeko, Irrati eta Telebistaren Estatutuaren laugarren artikulua aipatzen dituen printzipioak aplikagarri ez direla argudia dezakegu. Horretaz gain, kablearen kasuan, telebistak sortzeko betidanik jarriak izan diren limitazioen justifikazioek ez dute zentzurik,

“ ... telebista ez da emakiden bidez kudeatzen; oraingo honetan, merkatu askean mugitzen garenez gero, baimenen bidez gestionatuko da. ”

eta are gehiago izan da kablearen bidezko telebistaren kasuan, Konstituzio Auzitegiak igortzeko eskubide fundamentala arrezagutzen duen epaia eman duenean. Azken hau Legegilearen omisioa gainditzeko egiten da, ez egite honek Konstituzioaren 20. artikulua jaso duen eskubideen edukia egikaritu izan dadin galarazten duelako⁸. 2066/1996 Errege Dekretuak jasotzen du telekomunikabide mota honen erregelamendua.

Amaitzeko, ezin diogu telebista digitalari aipamen txiki bat egiteari uko egin. Honekin, eskura ditzakegun telebista kateak benetan ugaltu egin dira. Haatik, merkatua mugatua da eta orain ikusiko dugun bezala, honek hainbat arazo dakartza, batez ere publikitateari dagozkion sarrerak ere mugatuak direla kontuan edukita⁹.

Telebista digitalaren eraginak konplikatu egin du telebistaren eredu duala eta, aldi berean, “guda mediatiko” batean murgildu gaitu. Dakigunez, Espainian bi dira eratu diren plataforma digitalak. Lehenengo, “Canal Satellite Digital” izeneko plataforma sortu zen, PRISA taldeak burututa. Ondoren, RTVE ente publikoak “Via Digital” plataforma osatu du, Telefonica eta beste enprekin batera. Bi plataforma hauek

6. Kable bidezko telebistaren alderdi teknikoak zein juridikoak aztertzeko, ikus: P. MAYOR MENÉNDEZ: “Las telecomunicaciones por satélite”, *Cuadernos de Derecho Judicial*, VI. liburukia, 1997, 151 or. eta h.
7. Lur uhinen bidezko telebistaren eraentza juridikoan sakontzeko, ikus GERMÁN FERNÁNDEZ FARRERES: “La televisión local por ondas terrestres”, *Cuadernos de Derecho Judicial*, VI. liburukia, 1997, 135 or. eta h.
8. QUADRA-SALCEDO: “Los servicios televisivos...” aip. ob., 387-394 orr. Doktrinaren zati batentzat, aitzitik, kable bidezko telebista zerbitzu publikoa da. Honela dio, besteak beste, SALVADOR MONTEJO VELILLAK. Horretarako, bi dira SALVADOR MONTEJOK argudiatzen dituen arrazoiak: batetik, telebista ohituraz zerbitzu publiko izana, eta bestetik, kable bidezko telebista arautzen duen Legearen lehenengo artikulua, non irakur daitekeen kable bidezko telekomunikabideen zerbitzua Estatuko titularitatekoa den zerbitzu publikoa dela. Ikus: “Aspectos sustanciales de la Ley de Telecomunicaciones por cable”, *Cuadernos de Derecho Judicial*, VI. liburukia, 1997, 96 or. eta h.
9. MUÑOZ MACHADO, aip. ob., 83-90 orr.

erabakiorrak izango dira plataforma digitalaren eraentza juridikoan¹⁰.

Telebista hau eraentzen duen araudiaren jatorria 95/47/CE Direktiban dago. Direktiba hau 1/1997 Errege Dekretuaren bidez barneratu zen eta azken hau 17/1997 Legearekin baliozkotu¹¹. Xedapen hauen helburu nagusia konpetentzia askea eta monopolioak galaraztea bazen ere, bere eduki murriztailea Vía Digital plataformaren babesean dela nabarmen da zenbait puntuetan, hala nola deskodifikadoreen arauketan. Hori izan da, hain zuzen ere, bi lege hauen kontra aurkeztu diren konstituziokontra errekurtsoen arrazoia. Zentzu honetan, Europako Batasunak zehatzeko espediente bat ireki du Legea konpetentziaren aurkakoa delako. Azken honen eraginez, 16/1997 Errege Dekretuak, 1/1997 Legean hainbat aldaketa sartu ditu, baina hala ere ez da konkurrentzia guztiz bermatzen¹².

2. Europako Batasunaren jarrera

Beste sektoreekin egin duenaren aurka, Europako Batasunak barne arazotzat jotzen du telebistaren antolaketa, hau da, telebista izaera publiko edo pribatukoa izan beharra. Hori dela-eta, Europako Justizi Auzitegiak igortzeko monopolioa Europar Batasuneko Tratatuaren kontra ez dagoela hainbat aldiz adierazi du. Hala eta guztiz ere, operadore publikoen eskubide berezi eta eskusiboak zenbait muga ditu, monopolio honen antolaketa aipatu Tratatuaren kontra joan baitaiteke, hau da, konpetentzia eta merkantzi eta zerbitzuen zirkulazio askeko arauen kontra.

Ildo honetatik, bai Estatu kideak bai Europako Batasunak aniztasuna babestu eta abusuzko egoerak eragozteko neurri inportanteak hartu dituzte. Konzentrazioaren aurkako legedia komunikabideen eta programen edukiaren aniztasuna bermatzera zuzenduta dago, eta honekin batera konpetentzia sustatzera¹³. Europako Komisioak bilketa baimentzeko orduan egikaritu dezake eginkizun hau; Espainian, bestalde, telebistari buruzko legediak hartzen dituen neurriak hain dira larriak, ezen MUÑOZ MACHADOK "basa politika" bezala kalifikatu duela telebistarekiko politika murriztaile eta itxi hau¹⁴.

“ Europako Batasunak barne arazotzat jotzen du telebistaren antolaketa. ”

Orokorrean, Europar Batasunak arlo honetan, besteetan aurkeztu duena baino jarrera herabeagoa hartu du –komunikabideetan esate baterako–, izan ere telebista programen edukia arautzera zuzendu da batik bat. Honela, 1989ko urriaren 3ko Direktibak –“Muga gabeko telebista” izenekoa– kontsumitzaileak eta Europako kultura babesteko helburua du, eta horretarako programen zirkulazioa eta publizitatea arautzen ditu. Direktiba hau 25/1994 Legearen bitartez barneratu zen espainiar legedian. Joan den urtean, bestalde, Europako Parlamentua eta Kontseiluaren 97/36/CE Direktibak aurreko Direktiba aldatu egin zuen. Azken honen helburuak bi dira: alde batetik, kide diren Estatuak legedia armonizatzea, telebista emanaldien zirkulazio askatasuna bermatzeko, eta bestetik, europar industriaren programak sustatzea. Direktibak merkatuan gertatu diren aldakuntzak ditu kontuan, garapen teknologikoa batez ere, eta zenbait kontzeptuen definizioa barneratzeaz gain, tele-erosketaz, haurren babesaz eta kirol emanaldiez arduratzen da¹⁵.

3. Telebista publiko eta pribatuaren arteko ika-mikak

1. Aztertu dugun legediari men eginez, telebista egun Estatuaren titularitateko zerbitzu publikoa da. Aitzitik, hain tinko eta sendo dirudien deklarazioaren lehenengo arteka Euskadin

10. Telebista digitalari buruzko bi plataformen arteko liskarren berri edukitzeko, ikus A. VALLES COPEIRO DEL VILLAR: “La regulación de la televisión digital: Crónica de una guerra mediática”, *Revista General del Derecho*, 639 zenb., 1997, 13827 or. eta h.
11. Lege honen edukia eta aurrekinak ikastearren, ikus M. CARLÓN RUIZ: “Breves reflexiones jurídicas en torno al Decreto Ley sobre televisión digital”, *Revista Vasca de Administración Pública*, 48. zenb., 1997, 301 or, eta h. eta A. VALLES COPEIRO DEL VILLAR: “La regulación de la televisión digital...”, aip. ob., 13822 or. eta h.
12. M. CARLÓN RUIZ: “Breves reflexiones jurídicas en torno al Decreto Ley sobre televisión digital...”, aip. ob., 317 or. eta h.
13. MUÑOZ MACHADOK (aip. ob., 159 or. eta h.), Europako Batasunak telebistaren eraentza juridikoari lehia askea aplikatzeko hartu dituen azken neurrien berri ematen digu. Zentzu honetan ez bakarrik eskubide eskusiboen edo berezien aurka hartutako neurriak, programen joan-etorri askea babesteko hartu diren neurriak ere azaltzen dizkigu.
14. *Ibidem* 213 or.
15. *Ibidem* 225 or. eta h.

gertatzen da, laugarren kateko telebistaren esku. Euskadiko Autonomia Estatutuaren 19.3 artikulua “telebista propioa mantendu, sortu eta arautzeko” eskubidea aldarrikatzen du. Honela, erregimen bereziko beste Autonomia Erkidegoek ez bezala, Euskadik telebista propioa du 1982. urteaz geroztik¹⁶.

Hamabost urte beranduago, gobernu popularrak telebista autonomikoak arautzen dituen Lege-proiektu bat aurkeztu du Kongresuan. Legearen helburua, gobernuaren esanetan, Erkidego Autonomoen eskuduntzak zabaltzean datza, hauek izan daitezten bere telebistaren kudeaketa mota aukeratuko dutenak. Horretarako, besteak beste, telebista autonomikoaren titularitatea Estatutik Erkidegoetara pasako litzateke, eta honela hauen esku geratuko litzateke telebista hauek pribatizatzeko aukera. Proiektu honek, oposizio politikoaren kritikaz gain, kezka eta urduritasun nabarmena sortu du ikusentzute sektorean, batez ere, “publizitate tarta” ez delako hazi azken urteetan. Bestalde, esan dugun bezala, proiektuaren helburuetako bat telebista hauek pribatiza daitezten bidea eskaintzea da, eta bide batez Autonomia Erkidegoen zorra murriztea. Honen kontra eta egunkarietan argitaratutako datuak kontuan hartuta, telebista autonomikoek duten zor kopurua –guztira 80.000 milioi pezetakoa– txikieria bat dela esan daiteke 1998. urterako Estatuko telebista publikoak aurrakusten duen 765.000 milioi pezetako zorrarekin konparatzen badugu (*El País* egunkarian 1998ko apirilaren 14ean eta urte bereko azaroaren 19an argitaratutako datuak).

“ **Euskadiko Autonomia Estatutuaren 19.3 artikulua “telebista propioa mantendu, sortu eta arautzeko” eskubidea aldarrikatzen du.** ”



Bi dira, dagoeneko, pribatizatzeko prest agertu diren telebista autonomikoak: Telemadrid eta Canal 9, Madril eta Valentiakoak hurrenez hurren. Pribatizazio hauek errezeloak sortu ditu oposizio politikoan, salmenta honen bitartez Estatua parte den enpresek telebista autonomikoak kontrolatuko dituzten susmoa altza baita.

2. Horretaz gain, aurrerago esan dugun bezala, telebista zerbitzu publikoa da, eta ondorioz, bere programazioak baldintza zehatz batzuk bete beharko litzuke. Zaila izango zaigu, ordea, telebista publikoaren eraentzan zerbitzu publikoa izateak suposatzen duen galdapenak aurkitzea. Hau da, legediak hainbat aldiz deklaratzeko du telebista zerbitzu publikoa dela baina ez ditu deklarazio horretatik ondorio zehatzak ateratzen, ez baitira zerbitzu publikoko misio konkretuak inon ematen jakitera.

Telebista publikoa arautzen duen legeak bere kudeaketak errespetatu behar dituen zenbait printzipio jasotzen ditu. Printzipio hauek, berez, bere *zerbitzupublikotasunaren* adierazgarri izan beharko lukete, baina ez da horrela izan. Hauetako batzuk zerbitzu publikoa izatearekin lotuta badaude (objetibitatea, inpartzialitatea, informazioa eta iritziaren bereizketa esate baterako) beste printzipio batzuk (egiaztasuna eta ohorearen errespetua adibidez) orokorrean galdatzen diren printzipioak dira. Are gehiago, printzipio hauek guztiak telebista pribatura zabaltzen dira, azken hau ere zerbitzu publikoa delako, eta honek zenbait arazo planteatzen ditu, aniztasun printzipioarekin batik bat.

Telebista pribatuak, aldiz, garrantzi handiko mugak jasan behar dituzte programazioaren edukari dagokionez eta aldi berean, beren zehapen sistema, telebista publikoari zegokiona baino askoz ere zorrotzagoa zen 1994 urtera arte. Haatik, telebista pribatuaren finantzaketa publizitatearen bidez lortutako sarreretara murrizten da, hau da, zerbitzu publikoa izateak ez du inolako ondorioz telebista mota hau finantzatzeko orduan. Bi faktore hauek kontuan edukita, hots, finantzaketa eta programazioaren edukari buruzko galdapenak, ondorengo kontraesana jazotzen da: telebista publikoa hornitzeko bideak bikoitzak diren bitartean, hau da, aurrekontu publikoak eta publizitatearen bidez, eta programazio kalitatearen galdakizunak garrantzi gutxiagokoak diren bitartean, telebista pribatuak, aurrekontu publikoek elikatu gabe,

16. Euskadiko Autonomia Erkidegoko Telebistak 1982ko maiatzaren 20ko 5/1982 Legean du jatorria. Bere sortzeak eztabaida handia eragin zuen, izan ere telebista autonomikoak arautzen zituen 46/1983 Legea eta Irrati eta Telebistaren Estatutua onartzen zuen 4/1980 Legea kontuan eduki gabe jazo baitzen. Polemika honen berri edukitzeko, ikus I. LAZCANO BROTONS: “Medios de comunicación social y competencias de la Comunidad Autónoma Vasca”, *Estudios sobre el Estatuto de Autonomía del País Vasco* bilduman argitaratuta, II. liburukia, HAAE-IVAP, Oñati, 1991, 829 or. eta h.



programazio maila telebista publikoak baino gehiago zaindu behar du¹⁷.

3. Aurrekoarekin lotuta, telebistaren kontrola eta, aldi berean, independentzia bermatzen duen sistemak zenbait arazo sortarazten ditu. Zentzu honetan, telebistaren independentzia eza nabarmena da. Oso ezaguna da telebista publikoak boterean dagoen alderdi politikoen mesedean funtzionatzen duela, hau da, jezarritako gobernuaren jarraipena ahalegintzen du eta boterean dagoen alderdi politikoen interesak ez du derrigorrez interes orokorrekien bat egiten.

Hori horrela bada ere, telebista publikoa eraentzen duen Legeak bi kontrol-tresna aurreikusten ditu. Alde batetik, Batzorde parlamentario batek du beregain telebista honen eskuhartzea, eta bestetik, Administrazio Kontseiluko kideak Gorte Orokorrek izendatuak behar dute izan. Esan beharra dago, praktikan kontrol hau ez dela oso eraginkorra izan. Gainera, RTVE entearen lehendakaria (López-Amor duela denbora gutxira arte, eta Pío Cabanillas une honetan) gobernuak izendatzen du, eta azken hilabeteetako egunkariei gainbegirada bat botatzen badiegu, kargu honen gobernuarenganako menpekotasunak zeresan handiak sortu dituela berehala egiaztatuko dugu.

Ildo honetatik, telebistaren kontrola gauzatzearren azken urteetan proposamen ugari egon dira. Hauetatik esanguratsuena duela hiru urte egin zen. Orduan, Victoria Camps katedradunak burutzen zuen batzordeak ezagutzera eman zuen "Ikusentzute Bideen

“ ... telebista zerbitzu publikoa da, eta ondorioz, bere programazioak baldintza zehatz batzuk bete beharko lituzke.



Kontseilu Nagusia” ia aho batez onartu zen Senatuan.

Urte honetako hasieran, PSOEk “Ikusentzute Bideen Kontseilu Nagusia” eratzeko proposamena egin du. Bertan, organu honen kideak independenteak direla adierazten da eta horretarako Gorteen izendatuko dituztela aurrakusten da. Bere eginkizunen artean zehatzeko ahalmena, Konstituzioaren baloreak zaindu eta komunikabideen titularitatearen gardentasuna bermatzea aurrakusten dira besteren artean. Gobernuaren erantzuna ez zen gehiegi berandutu, eta egun gutxi barru “Ikusentzute Kontseilua” sortzeko proposamena kaleratu zuen, gobernuak izendatutako kideez osatuta eta Telekomunikabideen Batzordeari atxikita.

Guztira, RTVEko Administrazio Kontseiluaren jardueraren egokitasunari buruzko kekek egunetik egunera gehitzen doaz eta desadostasun politikoak “Ikusentzute Bideen Kontseilua” sortzea galarazi du. Bien bitartean ondoko herrian, Frantzian, “Ikusentzute Kontseiluak” normalitate osoz dihardu. Organu honek ikuskatu eta zehatzeko ahalmen garrantzitsuak ditu. Bere eginkizunen artean ondoko hauek dira aipagarri: tratu berdintasuna ziurtatu, telebista eta irrati sektorearen inpartzialitatea eta independentzia bermatu, programen kalitatea eta aniztasuna, ikusentzuteko produkzioaren hedapena eta frantziar kultura eta hizkuntza zaindu¹⁸. Erresuma Batuan, bestalde, BBC telebista publikoko gobernuaren barne kontrolez gain, ikusleen murtziloak jasotzen dituen batzorde bat dago eratuta, *Broadcasting Complain Commission* izenekoa. Gainera, *Broadcastin Standards Council* deritzon organoak programazioaren aspektu zehatzak ditu beregain, hala nola, gustu onekoa eta egokia izan dadin, sexu eta bortizkeriaren tratamendua etab. Britainiar telebista pribatuari dagokionez, aipatutako azken bi organu *eta Independent Television Commission* (ITC) deritzon organuaren esku dago. Azken honek, gobernuarenganako independentzia du¹⁹.

4. Telebistaren zerbitzupublikotasuna

Espainiar telebistaren antolaketaren zutabetak hiru dira: zerbitzu publikoa, Estatuaren titularitatea eta monopolioa. Itxuraz, proposizio hauen arteko harremana ezinbestekoa da. Telebistak aniztasun politikoaren adierazgarri izan

17. Telebista publiko zein pribatuen printzipio eta finantzaketari buruz, ikus QUADRA-SALCEDO: “Los servicios televisivos...”, aip. ob., 371 or. eta h. eta 380 or. eta h. hurrenez hurren.

18. ikus MUÑOZ MACHADO, aip. ob., 110 or. eta h.

19. Ibidem 119 or.

behar du eta Estatuak bakarrik berma dezake aniztasun hori, horretarako enpresa askatasuna mugatu behar badu ere. Telebista benetako zerbitzu publikoa izan dadin, Estatuak partehartzeko sakona hartuko du beregain. Honela, azken hau uhin hertzianoen bidezko telebista –hau da, TV1 eta TV2 telebistetan–, satellite bidez igortzen den telebista eta telebista digitalean aurkituko dugu aurrez aurre, Via Digital izeneko plataforma digitalaren kide bezala.

Zerbitzu publikoa deklaratzeko den eremua benetan zabala da, ez bakarrik telebista publikoa, 1988ko Legearen bitartez jaiotako telebista pribatuak, telebista autonomiko eta lokalak ere dira zerbitzu publikoak –kable bidezko telebistaren kasuan ez dago hain garbi oraindik ere–, eta honek egoera paradogiko batera eramaten gaitu: Estatuaren presentziak telebista benetako zerbitzu publikoa izan dadin ziurtatu nahi du, baina inon ez da adierazten zertan datzan zerbitzu publiko izate hori, eta noski, indeterminazio horrek ondorio larriak ditu praktika mailan.

Lehenik eta behin, Estatuak titularitateko den telebistaren edukia ez da bere zerbitzu publikotasunagatik bereizten. Aitzitik, denok antzeman ahal izan dugun bezala, bere programazioa gero eta komertzialagoa da. Hori dela-eta, telebista pribatuak kudeatzen dituzten enpresek egoera hau salatu dute, aurrekontu publikoekin hornitzen diren telebistak konpetentzia ezleialean erori direlako. Arazo honi aurre egiteko, Estatu batzuetan telebista publikoak publikitatearen bidez lor ditzakeen sarrerek mugatu (Alemanian eta Frantzia adibidez) edo ukatu egin dituzte (hala nola, Erresuma Batuko BBC telebista publikoa finantzatzerakoan). Telebistaren finantzaketa

“ Espainiar telebistaren antolaketaren zutabetak hiru dira: zerbitzu publikoa, Estatuaren titularitatea eta monopolioa. ”

kanonen bidez egiten den Estatuak ere aurki ditzakegu zuzenbide konparatuan (Erresuma Batua, Italia, Alemania eta Frantzia)²⁰. Azken sistema hau espainiar telebistan aplikatzeko eztabaidak azken egunetan berpiztu egin dira, telebista publikoak sortzen duen zor publikoaren garrantzia dela-eta.

Ikus dezakegunez, programazioaren kalitatea edo edukia oro har eta telebisten finantzaketaren arteko harremana zuzeneko da.

Aipatutako guztia kontuan edukita eta etorkizunari begira, badirudi bai legegileak eta bai jurisprudentzia konstituzionalak okerreko bidea hartu dutela. Zerbitzu publikoa ez doa ez monopolioari, ez emakidari ezta Estatuaren titularitateari ere lotuta nahitaez. Jakin badakigu zerbitzu publikoak kudeatzeko beste moduak daudela, baina telebista kudeatzeko, askatasuna gehien murrizten duen sistema aukeratu da –zerbitzu publikoa–, eta partikularrek jarduera honetan eskuhar dezaten irekita utzi duten ate bakarra emakida da. Horretaz gain Estatuak titularitatekoak ez diren zerbitzu publiko asko daude, eta hauen funtzionamenduak ez du horregatik inolako kezkarik sortzen.

5. Ondoriak

Orokorrean, telebistak azken hamabost urteetan jasan behar izan dituen aldaketak legedian isladatu dira. Lege hauek bata besteen atzetik argitaratuak izan dira momentuan aurkeztzen zen arazoari irtenbidea ematearren. Hau da, hartutako neurriak behin-behinekoak izan dira, eta telebistari buruzko plan edo politika orokor baten beharra somatzen dut. Telebista mota guztiak armonizatzeko beharra benetan ezinbestekoa da. Indarrean dagoen legediaren helburu nagusia monopolio publikoa beste pribatu batek ordezkatu ez dezan bermatzea izan da, honela, legedi hori orain arte, konzentrazioa eragozteko neurriak jasotzeaz arduratu da batik bat. Gaurko telebistaren kutsu kulturala desagertzeko zorian dago aniztasuna eta kalitatea baino askoz ere onuragarriagoak diren interes komertzialak direla medio, eta esandako azken honen froga nabarmenena kirol jarduerak igortzeko eskubideen ondorioz jasan behar izan dugun telebisten arteko guda da, beti ere, sektorearen bake ezarekin gehien kaltetua gertatzen dena ikuslegoa baita. Planifikazio honen gabezia, aipatu dugun 95/47/CE Direktibak paira zezakeen, baina ez da horrela izan, azken hau barne ordenamendura sartzekoan jatorrizko xedapenak zuen ikuspegi orokorra galdu baitu eta satelliteen bidez igortzen den telebista digitalera mugatu baita batik bat.

20. Telebista publiko eta pribatuaren finantzaketa zuzenbide konparatuan aztertzeke, ibidem 90 or. eta h.

Egitasmo honen lehenengo egitekoa telebista sistema eraberritzea izango litzateke, hau da, eredu duala berriztatu eta telebista publiko zein pribatuari dagokion tokia zein den argitu, izan ere orain indarrean dagoen sistemaren akats nagusia telebista pribatua zerbitzu publiko deklaratu izanak sortu baitu. Horregatik, konponbidea telebista pribatuen deskalkifikazioarekin etor daiteke, hau da, telebista honek Konstituzioan agertzen diren printzipio orokor batzuk errespetatu behar baditu ere –komunikabide mota guztiek bete behar dituzten hastapenak– ez da beharrezkoa zerbitzu publiko bezala kalifikatzea, eta ezta ere emakidan ematea. Izan ere, oraingo egoerak ondoko galdera sortarazten dit: telebista pribatua zerbitzu publikoa bada, zergatik ez da aurrekontu publikoekin hornitzen telebista publikoa bezala?. Satellite bidez igortzen den telebistak honela ulertu du eta ez da ez zerbitzu publiko deklaratzeko eta ezta emakidan kudeatuko dela adierazten ere, bere prestaketarako baimen soilak nahikoak baitira. Honela, telebista publikoa bakarrik izango litzateke zerbitzu publiko. Zerbitzu publiko izateak telebista mota honek eskaini behar duen programazioan izango zuen eragina batez ere. Horretaz gain, telebista hau finantzatzeko aukerak anitzak dira dakigunez. Argi dago publizitatearekin lortutako sarrerak kompetenziaren aurka joan daitezkeela, beraz publizitatean jatorria duten sarrerak ukatuak edo gehienez mugatuak izan beharko lirarteke. Beste finantzaketa iturriei dagokienez, aukerak bi dira: kanon baten bidez asetu behar horiek edo telebista publikoak gastu bat –kopuru handiko gastu bat– suposatzen duela duintasunez onartu.

Dena dela, telebista gure ondoan jazotzen ari den aldaketa nabarmen batez oroitu beharrean dago. Zuzenbide komunitarioaren eskutik, zerbitzu publiko kontzeptua aldaketa sakonak jasaten ari da. Urrun gelditzen dira, honezkerok, zerbitzu publiko eta monopolioen arteko nahitaezko loturak, hots, zerbitzu publikoak gaur egun, ez dute merkatuaren kontra jardun behar, merkatuaren barnean baizik. Zerbitzu publiko horien artean telebista dugu, eta hau, denborarekin, Estatu telebista izatetik merkatuko telebista izatera pasako da.

Honekin ez dugu telebistak duen garrantzia gutxietsi nahi; alderantziz, telebista ez da enpresa askatasuna egikaritzeko jarduera bat soilik. Telebista, kultura eta iritzi publiko askea sortzeko baliabide inportanteena da gaur egun, eta honetan datza, hain justu, bere akatsik nabarmenena: kultura hori Estatu gehienetan anitza da, eta ez telebista publikoak aditzera ematen duen bezain uniforme. Telebista benetan publiko izateko, oinarritzen duten komunitate guztiak egon behar dira ordezkaturak eta komunitate guztiek eduki behar dute sarrera publikotzat hartzen den telebista batean.